

## Ordiziako Udala

2019ITGB0010

Ordizian, **2019ko urriaren 17an**, udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

### **BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA:** Adur Ezenarro Agirre.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Maitane Alvarez Garziandia	Euskalerrria Bildu EH-BILDU
Jon Ander Caballero Zubelzu	Euskalerrria Bildu EH-BILDU
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ/PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Elkarrekin Podemos - Ordizia Orain Podemos, Ezker Anitza/IU,EQUO Berdeak
Iñaki Dubreuil Churruca	PSOE-EE(PSOE)

### **BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

### **IDAZKARIA:**


Ana Urkizu Kerejeta

### **ETORRI DIRENAK ETA JOAN DIRENAK**

Maitane Alvarez andrea 5. Puntuan joan egin da.

### **AZTERTUTAKO GAIK**

- 1.-2019ko irailaren 26ko Tokiko Gobernu Batzordeko akta onartzea.
- 2.-Aurrekontuaren aldaketa, kreditu transferentzia bitartez egindakoa (plenoan erabakitako ekarpenak burutzeko Majori eta Ordizia Lantzeni)
- 3.-Hirigune historikoan etxebizitzak, garajeak eta lokalak dituen eraikina eraikitzeko obra baimena Elkano 10)
- 4.- Hirigintza eta obra baimena Orkli S.Coop. enpresaren eraikina handitzeko.
- 5.-Komunitatean kulturarteko bizikidetza sustatzeko Zerbitzuaren Kontratatazioa.
- 6.- Alderdi sozialistak aurkeztutako administrazio proposamena, Udal Gobernuari eskatuz Klima Larrialdiaren aurrean neurriak har ditzan
- 7.- Zenbait txosten eta eskaera.  
-ORDIZIAKO PSE-EE(PSOE)ren eskaera, gizarte Zerbitzuetako udal Aholku Batzordearen bilera deialdiari buruzkoa.
- 8.- Udal langileen inguruko gaien informazioa.  
.- Hirurtekoak, barne promozioa  
.- Zerbitzu orokorretako peoiaren izendapena.  
.-Lorezaintza peoiaren izendapena.  
.-Kontu-hartzaitzako administrariaren aldi baterako programaren luzapena.
- 9.- 19/0628; 19/0752; 19/0582; 19/0751 eta 19/0815 Dekretuen informazioa.
- 10.-Fakturen zerrenda



## **Ordiziako Udala**

2019ITGB0010

- GALDE-ESKAERETAN AZTERTUTAKO GAIAK.


- .- Construcciones MOYUArekin izandako bileraren berri ematea.
- .- Adierazpen instituzionala "Proces"ari buruzkoa.

### **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 14:00**

**AMAIERA ORDUA: 15:50**





**Ordiziako Udala**

2019ITGB0010

**1.- 2019ko irailaren 26ko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2019ko irailaren 26ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Eztabaida

Batzordeburuak esku hartzeko txandak irekita, jarraian izan direnak jaso dira:

Dubreuil jaunak, esan du, 5. puntuan, "kontu ematea", alkateak zenbait punturi buruzko informazioa eman zuela, besteak beste: Eguneko arreta zentroko dirulaguntza, udaltzaingoko langileen egoera, Majori Kiroldetik obrak eta Moyuarekin izandako bilerak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin izandako bilera.

Esan du gai hauei buruzko informazioa oso era laburrean jaso zela.

Aktan informazio gehiago jasotzeko eskaera egin du, emandako informazioari buruzkoa.

Idazkari andreak akta zuzendu du eta informazioa zabaldu du ondorengo puntuetan:

- Eguneko Arreta Zentrorako dirulaguntza: Alkateak jakinarazi du obrarik ez dela egingo oraingoz eta formalki uko egingo zaiola emandako dirulaguntzari.
- Udaltzaingoa: Jakinarazi du langileak falta direla udaltzaingoa eta arazoak eman dituela Auzotegi Nagusiko 2019ko ekaineko epaiak, udaltzainen bitarteko izendapenak debekatzen baititu.
- Majori Kiroldetik obrak, Moyuarekin bilerak, obren esleipendunarekin. Desbideraketak daudela esan du, exekutatu beharreko obra unitateak ugaitu direla eta gainera hasierako proiektuan klimatizaziorako aurreikusitako partida ez da nahikoa egin behar diren obra eta instalakuntzetarako. Kontratuan aldaketa bat egin beharko da, une honetan hori aztertzen ari dira.
- Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailarekin izandako bilera: Egindako bileran Orkli inguruko airearen kalitateari buruzko arazoak hitz egin da.

Zuzenketa egin eta gero, bozketa egin da.

Bozketa

Aldeko botoak: 6 (Euskalerrria Bildu EH-BILDU 3, EAJ/PNV 1, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 1, PSOE-EE(PSOE)1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**Ondorioz, alkate jaunak akta aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, hurrengo aztergaiaren berri eman da.

**2.- Aurrekontuaren aldaketa, kreditu transferentzia bitartez egindakoa (plenoan erabakitako ekarpenak burutzeko Majori eta Ordizia Lantzen)**Proposamena**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**  
**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
221.09.171.10	Garb.produkt.Park eta lor.	6.185,53	3.197,92	2.987,61
227.04.231.00	Kontr. de Ongiz.saila	25.000,00	22.500,00	2.500,00
215.01.920.00	Inf.proz.ekipam. .Admin.Orokor.	11.187,00	6.000,00	5.187,00
221.09.920.00	Garbiketa produktoak	5.081,99	5.081,99	0,00
227.07.920.00	Azterlan teknik. Admin.Orokor	14.848,20	10.000,00	4.848,20
431.01.333.20	Ekarpen. HERRI ANTZOKIA	132.366,31	8.626,59	123.739,72
471.06.430.00	Ordizian-ayto.(App Comercio)	5.000,00	5.000,00	0,00
480.01.152.20	Zahar-berritzeko diru-lagun..	50.000,00	15.000,00	35.000,00
480.05.231.30	Udal zergen dirulaguntzak	5.000,00	5.000,00	0,00
480.07.231.30	Familien dirulaguntzak	50.000,00	20.000,00	30.000,00
481.01.912.00	Transf. Gob. Org.	5.593,50	5.593,50	0,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>317.666,14</b>	<b>106.000,00</b>	<b>211.666,14</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 601.01.152.10.0211 2019	San Juan Urbanizaioko kuotak.	0,00	81.000,00	81.000,00
1 733.01.341.01.0161 2019	Majori taberna ekipamendurako ekarpena	0,00	25.000,00	25.000,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>0,00</b>	<b>106.000,00</b>	<b>106.000,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira


Eztabaida

Alkate jaunak esku hartzeko txanda zabaldu duenean, ondorengoak jaso dira:

Alkate jaunak onartzeko proposatzen den kreditu aldaketari buruzko informazioa eman du.

Bertaratutakoei jakinarazi die 2019ko urriaren 10eko osoko bilkuran, besteak beste, Majori Kiroldegiari egingo zaion 25.000 euroko ekarpenari eta Ordizia Lantzen SARI egingo zaion 110.000 €ko gehienezko ekarpenari dagozkion akordioak onartu zirela, zenbait banketxerekin hitzartuta dituzten maileguetako kuotei aurre egiteko.

Ordizia Lantzen SARI ekarpena egiteko onartu den kreditu transferentzia, guztira, behar zen kopuru zehatza jakin eta gero, guztira 81.000 €koa da.



Bozketa

Aldeko botoak: 6 (Euskalerrria Bildu EH-BILDU 3, EAJ/PNV 1, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU,EQUO Berdeak 1, PSOE-EE(PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**Ondorioz, alkate jaunak aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian Batzordeburu jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**3.-Hirigune historikoan etxebizitzak, garajeak eta lokalak dituen eraikuntza eraikitze obra baimena Elkano 10)**

Proposamena

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- AISAPE04 SLen izenean Miguel Perez Septienek egindako eskaera, Ordiziako Herriguneko EU B.05/06 lursailean 10 etxebizitza, merkatal lokala eta garajeak edukiko dituen eraikin bat egiteko obra-baimena eskatuz. Horretarako, 2018ko abenduaren 3an Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak ikus-onetsitako "Egikaritze-proiektua" aurkeztu du.
- Udal arkitekto teknikoaren txostenak: Segurtasun eta Osasun Azterketa, Kalitate-kontrolaren Plana eta Telekomunikazioetako Azpiegitura Arruntaren Proiektuari dagokienak.
- 2019ko irailaren 9ko data duen Udal arkitektoaren txosten teknikoa.
- 2019ko irailaren 30eko Obrak eta Hiri Garapen Delegaritzaren akordio proposamena.

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**


- **AISAPE04 SLri eskatu duen obra-baimena ematea, ekarri duen proiektuaren arabera eta honako hauek betetzekotan:**

- **Erabilera, jabari eta eraikuntza baldintzak.**

Erabilera eta jabari baldintzei dagokienez, sarbide-zortasuna, argiak eta vista mantendu beharko dira B703 lursailean beheko solairuan eta bereziki portxean. Zortasun hauen mantenimendua edota eraketa nahitaezkoa izango da lehen erabilerako baimena emateko.

- **Segurtasun eta Osasun Azterketa.**

1. Oinezkoen pasabidea eta segurtasuna ondo seinaleztatu beharko da. Oinezkoen pasabidea erabat babestuta geratuko da, harri-txintxorrak edo obrako materialak eroriko balira; horretarako markesina edo babeserako txapel moduko bat jarriko da.
2. Edukiontzia, siloak eta metatu beharreko gainerako materiala partzelaren barruan ipiniko dira beti. Espresuki debekatuta dago obra-esparrutik kanpo uztea materialak eta bestelako baliabide osagarriak.
3. Obrek irauten duten bitartean, seinaleztapen-, babes- eta segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, istripurik gerta ez dadin. Bideek nahiz espaloiek, bertatik ibiltzeko moduan eta babestuta egon beharko dute, Udaltzaingoaren jarraibideak betez
4. Urbanizazioko areka eta estolda-zuloak garbi eduki beharko dira.
5. Ur hartunea behar izanez gero, Gipuzkoako Urak-ekin harremanetan jarri beharko dute.



## Ordiziako Udala

2019ITGB0010

6. Barrunbea erabat itxita eta babestuta geratuko da. Lursailaren itxitura barruan geratzen diren urbanizazioko elementu nahiz zoladurak babestuko dira.
7. Obratik aterako diren kamioiak, gurpilak garbi dituztela aterako dira, lokatzik eta bestelako obra-materialik gabe.

- **Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua bete beharko da.**

Eraikuntza eta eraispén hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan zehaztutakoaren arabera, kendu eta kudeatu beharko dira eraispén edo demolizioko hondakinak.

Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza **7.641,60 eurokoa** da. Aipatutako fidantza obrak hasi aurretik jarri beharko da. Fidantzaren itzulketa horrela burutuko da: obligaziodun pertsonak aldeztu aurretik eskaera eginda eta Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoan oinarrituta, obran sortutako hondakinen kudeaketa egokia egin dela egiaztatuta ondoren.

- **Obrari ekin aurretik honako baldintza hauek hartu beharko dira:**

- Obrako zuzendari fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko da.
- Dagokion sokak jartzeko akta gauzatzea.
- Aseguru-polizaren egiaztagiria (kopia) ekarri beharko du, mugakide diren etxeetan, ondasunetan eta pertsonengan eragindako kalteei aurre egiteko.
- Exekuzio aurrekontuaren % 2ko adinako banku-abala ekarri beharko du, eraikin berria altxatzen duen bitartean urbanizazioan eragin ditzakeen kalteak konponduko direla bermatzeko. Berme hori, konponketa lanak bukatzean itzuliko zaio.
- Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren arabera eskatutako fidantza ematea, **7.641,60 euro**, aurretik zehaztu den moduan.
- Aipatzen diren zenbateko guzti hauek Udalak duen kontu zenbakian jarri beharko dira **obrak hasi aurretik**, bakoitzaren kontzeptua zehaztuz. Kontu zkia. hau da:

**Kontu zkia: 20955073041060024857**

- **Honako arau hauek bete beharko dira obrak egiterakoan:**

- Baimena eman eta hiru hilabeteren barruan hasi beharko dira lanak, eta epe hori igaro eta hasi gabe badaude, iraungitza joko da obra-baimena. Bukatu, berriz, 24 hilabeteko epean bukatu beharko dira. Obrak burutzeko gehieneko epea ez da izango 4 hilabete baino gehiagokoa.
- Obrak egiteko ordutegian ezarri den muga, 8:00etatik 20:00etara izango da lanegunetan, eta 8:00etatik 14:00etara jai-bezperetan. Jaiegunetan ezingo da lanik egin.
- Bide-seinale alternatiboak behar badira, euskaraz eta gazteleraz egingo dira, eta bi hizkuntzetan antzeko grafia duten hitzak eta esamoldeak eta piktogramen bidez egiten direnak, berriz, euskaraz idatziko dira (Euskararen erabilerarako ordenantzen 18.artikulua)- Udalak itzulpenetarako doako zerbitzua ematen dizu 943 80 56 22.


- **Baimena emateko aurrez udal zerga eta tasak ordaindu beharko dira.**

- Akordio hau doakionari jakinaraztea

### Eztabaida

Alkate jaunak esku hartzeko txandak ireki eta gero, ondoren jaso direnak izan dira:

Alkate jaunak proposamena azaldu du.



## Ordiziako Udala

2019ITGB0010

Dubreuil jaunak esan du ez duela bozkatuko puntu honetan gaiarekiko zuzeneko interesa duelako.


### Bozketa

Aldeko botoak: 6 (Euskalerrria Bildu EH-BILDU 3, EAJ/PNV 1, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU,EQUO Berdeak 1, , PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**Ondorioz, alkate jaunak aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Batzordeburu jaunak hurrengo puntuaren berri eman du:

#### **4.- Hirigintza eta obra baimena Orkli S.Coop. enpresaren eraikina handitzeko.**

##### Proposamena

##### **HONAKO HAU IKUSITA:**

- ORKLI S.COOP-en izenean *Aintzane Marauri Alvarezk* egindako hirigintza eta obra baimen eskaera, Orkli S.Coop.en Konpresore Gelako Eraikina Handitzeko obrak egin daitezzen lizentzia eskatuz. Horretarako ekarri du 2019ko uztailaren 1ean Gipuzkoako Ingeniarien Elkargo Ofizialak ikus-onesitako "Konpresore Gelako Eraikina Handitzeko Proiektua".

- 2019ko irailaren 23ko Udal Arkitektoaren txosten teknikoa.

- 2019ko irailaren 30eko Obra eta Hirigintza Delegazioaren akordio proposamena.

##### **HONAKO HAU ERABAKI DA:**

➤ **ORKLI S.COOP**ri ematea, eskatu duen obra baimena, ekarri duten proiektuaren arabera eta honako hauek betetzekotan:

##### ▪ **Honako agiri hauek ekarri beharko dituzte obra hasi aurretik:**


1. Gipuzkoako Errepide eta Bideetako Foru Arauaren Testu Bategina onartzen duen ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretuaren 77. Artikuluak ezartzen duenaren arabera, jarduketak administrazio baimena behar du, babes-eremuan kokaturik baitago. Foru Arau honetako 80. artikuluan zehaztutakoaren arabera, baimena nahi duen pertsonak edo erakundeak idatziz aurkeztu beharko du idatzia Foru Aldundian. Hori dela eta, obrak hasi aurretik, Foru Aldundiaren baimena aurkeztu beharko da Udalean.

2. Jarduketa ibaien zaintza eremuan kokatzen da, eta beraz, obrak hasi aurretik, URAREN baimena eskuratu beharko du.

3. Obrako zuzendari fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko da.

4. Aseguru-polizaren egiaztagiria (kopia), mugakide diren etxeetan, ondasunetan eta pertsonetan eragindako kalteei aurre egitekoa.

5. Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza, **3.254,98 euros** eurokoa. Bermearen zenbatekoa Udalak duen kontu zenbakian jarri beharko da **obrak hasi aurretik**, kontu honetan



## Ordiziako Udala

2019ITGB0010

«Kontu zkia. 20955073041060024857»

▪ **Obrak irauten duten bitartean kontuan hartu beharko da.**

1. Istripuak ekiditeko behar diren segurtasun eta babes neurriak hartu beharko dira.
2. Obra materialak kalean utzi behar badira, horretarako udal baimena eskuratu beharko dute.
3. Erabat debekatuta dago kalean masa egitea.
4. Areka, estolda-zuloak eta orokorrean bide publiko guztia garbi eduki beharko dira.
5. Obren esleipenduna Lan Segurtasun eta Osasun arloan egunean izango da.
6. Eraispeneko hondakinak kentzeko eta kudeatzeko lanak, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege dekretuak eta Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera egingo da.
7. Eusko Jaurlaritzako ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan eskatutako fidantza **3.254,98** eurokoa da. Fidantza hau obrak egiten hasi aurretik ordaindu beharko da. Obligaziodun pertsonak eskaera egin ondoren itzuliko da fidantza eta obran sortutako hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ondoren, dekretuaren 6. artikuluan ezartzen den moduan. Fidantzaren itzulketa zein kontutan egitea nahi den, Udalarik kontu zenbakia eskuratu beharko dio eskaerarekin batera.
8. Obrak bukatzen direnean, dagokion Obra Amaierako ziurtagiria aurkeztu beharko da Udal bulegoetan, dagokion Elkargo ofizialaren ikus-onetsita, eta jarduera martxan jarri aurretik dagozkion agiriak ere aurkeztu beharko dira.

▪ **Gainera, honako hauek ere gogoan izan beharko dira:**

1. Obrak egiteko garaia, goizeko 8etatik gaueko 8etarako izango da lan-egunetan eta goizeko 8etatik eguerdiko 2etara jai-bezperetan. Jaiegunetan ezingo da lanik egin.
2. Obrak baimena eman eta 2 hilabeteren barruan hasi beharko dira. Bukatu berriz, 6 hilabeteko epean bukatuta egon behar dute. Gehienez hilabetez eten daiteke obra. Epe horietako edozein beteko ez balitz, baimena iraungita geratuko litzateke.
3. Bide-seinale alternatiboak behar badira, euskaraz eta gazteleraz egingo dira. Eta euskara hutsez idatziko dira, berriz, bi hizkuntzetan antzeko grafia duten hitzak eta esamoldeak edota piktogramen bidez egiten direnak (Euskararen erabilera normalizatzeko ordenantza 18. artikulua). Udalak itzulpenetarako doako zerbitzua ematen du: 943805622.

➤ Lizentzia hau udal zergen eta tasen aurre ordeinketari baldintzatua dago.

**Akordio hau doakionari jakinaraztea.**

Eztabaida

Alkate jaunak esku hartzeko txanda zabaldu duenean, ondorengoak jaso dira:

Alkate jaunak proposamenari buruzko informazioa eman du.

Bozketa

Aldeko botoak: 6 (Euskalerrria Bildu EH-BILDU 3, EAJ/PNV 1, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak 1, PSE-EE (PSOE) 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**Ondorioz, alkate jaunak aho batez onartutzat eman du aurkeztutako proposamena.**







Jarraian, Batzordeburu jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**5.- Komunitatean kulturarteko bizikidetza sustatzeko Zerbitzua Kontratatzeko.**

Propoamena

- Aditzera ematen dira Idazkaritzan burututako Administrazio Klausula Berezien Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua Ordiziako ikastetxeetako eskola komunitatean kulturarteko bizikidetza sustatzeko zerbitzua kontratatzeke, 26.500 euro gehi %21eko BEZeko aurrekontuarekin.

- Kontratazio Organoaren txostena, kontratatzeke beharrari buruzkoa Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 28 artukuluari jarraiki.

- Kontu-hartzailearen txostena, 1.226.09.231.00.0104 2019ko Aurrekontu orokorreko partidan gastuari aurre egiteko adina dotazio dagoela dioena.

Hori guztia aztertuta ondorengo akordioa proposatzea erabaki da:

AKORDIO PROIEKTUA:

**1.- Ordiziako ikastetxeetako eskola komunitatean kulturarteko bizikidetza sustatzeko zerbitzua kontratatzeke espediente onartzea eta lizitazioaren zenbatekoa, 32.065,00 euro BEZ barne.**

**2.- Kontratuko aldeak bereganatzen dituzten eskubide eta betebeharrak definitzen dituen Baldintzak Administratiboaren Plegua eta Baldintza Teknikoen Plegua onartu.**

**3.- Lehiaketa eta prozedura ireki bidezko lizitazio deialdiari hasiera ematea, azaroaren 8ko 9/2017 SPKLren 156 artukuluari jarraituz.**

Eztabaida

Alkate jaunak esku hartzeko txanda ireki ondoren, jarraian jaso direnak izan dira:

Alkate jaunak jakinarazi du proposatutako kontratazioa, ONGI ETORRI ESKOLARA programari dagokiola.

Diagnostiko bat egin da zerbitzu hori lizitatu aurretik, eta lizitazioa egokitu da, zerbitzu hori azterlan edo diagnostiko horretan zehaztutako jarraibideen arabera egiteko.

Alkate jaunak proposamenari buruzko informazioa eman du.

Bozketa

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak ireki eta gero, jarraian jasotakoak izan dira:

Aldeko botoak:5 (Euskalerrria Bildu EH-BILDU 2, EAJ/PNV 1, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU,EQUO Berdeak 1, PSE-EE (PSOE) 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz, Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, hurrengo aztergaiaren berri eman da.



**6.- Alderdi sozialistak aurkeztutako administrazio proposamena, Udal Gobernuari eskatuz Klima Larrialdiaren aurrean neurriak har ditzan.**

Proposamena

OINARRIAK

Aurreko ostiralean, hilak 27, Ordiziako Udalak klimaren aldeko mundu mailako Grebarekin bat egin, deitu eta bertan parte hartu zuen; planeta bizi baten eta bidezko mundu baten larrialdi Klimatikoaren aurrean neurri eraginkorrak eskatzea zuen helburu greba horrek,

Ordiziako Udalak aitortzen du krisi klimatikoa dela gizateriak duen erronka handiena. Horrekin batera aitortzen du planeta, eta bertan diren izaki bizidunak zein ekosistemak arrisku larrian daudela. Horren froga ditugu bloaniztasunaren egoerari buruzko IPBESen txostena eta IPCC-k egindakoa, 1,52C-ko beroketa globalari buruzkoa. Biek ala biek lurreko ekosistema gehienek desagertzea dakarren bideaz ohartarazi gaituzte. Miloi bat espezie mehatxupean daude giza- Jarduera dela eta. Aldaketa klimatikoari dagokionez, atzera bueltarik gabeko egoera batean egon gaituzke.

Ordiziako Udalaren ustez, milioika lagun hil daitezke krisi ekologikoari erantzun ezean, bizitzarako ezinbestekoak diren espezieen desagertze ordezkaezinaz gain, kontuan hartuta interrelazio ekosistemiko konplexuak.

Onartu egiten dugu krisi klimatikoa izan badela eta egoera larria dela. Bakarrik ebidentzia zientifikoak ontzat emateak eta haiek proposatutako emisioak murrizteak ahalbidetzen diote gure udalerriri etorkizuna bermatzea.


Borroka honen larritasunaz eta atzeraezintasunaz kontzientzia hartu behar dugu eta Ordiziako Udalak, adierazpenetatik eta agerraldi publikoetatik haratago, funtsezko eginbeharra du prestakuntzan, heziketan eta informazioan bai emisioak nahitaez murrizteko, baita beroketa globalaren ondorioetara egokitzeko ere.

LARRIALDI KLIMATIKOA izendatzeak, besteak beste, konpromiso politiko errealak eta lotesleak hartzea eskatzen du, oraingoak baino anbizio handiagokoak, behar besteko baliabide jarritz krisiarl aurre egite aldera. Bide-orrl lotesle bat behar dugu urtero negutegi-eragineko gasak murrizteko, erregai fosllak uzteko, energia %100 berriztagarria erabiltzeko, ahalik eta lasterren karbonoaren emisio netoak zerora behieititzeko, betiere IPCCren (klima-aldaketari buruzko gobernuarteko adituen taldea) txostenak markatutakoa jarraituz tenperatura globalak 1,52C gainditu ez dezan.

Larrialdi egoerak ekartzen du Udalak dauzkan baliabide guztiak erabiltzea krisi klimatikoarl eta beronen ondorioel aurre egiteko. Larrialdi klimatikoa izendatzeak krisi ekologikoaren egiarl eta beharrezko aldaketari buruzko heziketa, formakuntza eta kontzientziazio prozesu bat abian jartzea suposatzen du. ORDIZIAKO UDALAK ONDOKO KONPROMISOAK BERE GAIN HARTZEN DITU:

**1. Hartutako neurrien zaintzaren, jarraipenaren eta kontrolaren arloko eskumen lotesleak dituzten erabaki sozio-politikoak (politikariak eta herritarrak) hartzeko, proposatzeko, eztabaidatzeko,**

**2. Hausnartzeko mekanismo bat (lan-mahala) finkatzea lehentasunez eta premiaz. Hau da, Bide-orrl bat eztabaidatu eta adostea izango litzateke alderdi politiko, partaidetza-organo eta antolatutako herritar guztiekin (Altamirako auzo Elkarte, Ordizian, Hondakinen Mahala, mugikortasun mahaia, Ordizialab, Hirigintza Plangintzako aholkularitza Batzordea, Gizarte Zerbitzuetako Aholku Batzordea, enpresa ordezkarriak, eta abar.)Bide-orri horrek definitutako konpromiso eta lehentasunak ezarriko litzuzke, Udalak ordura arte hartutakoez gain. Horrekin**



## Ordiziako Udala

2019ITGB0010

batera bermatu behar litzateke mekanismo honek genero Ikuspegia eta beste talde ahulen ikuspegia txertatzea.

3. Udalak ondorengo konpromisoa hartuko du: 6 hilabeteko epean diagnostiko bat egingo du kllma-aldaketa eragiten duten udal eskumeneko faktoreen inguruan eta udalerria Energia Jasangarritasunari buruzko 4/2019 Legea egokitzeko. Emaltzak kontuan izanik, partaldetza prozesu bat lpiniko da martxan 2020. urtean zehar planifikazio bat egin eta bertan herritarren eta glzarte eraglleen ekarpenak jaso daltezen. Udalak planifikazio hori aurrera eramateko beharrezkoak diren ballabide tekniko nahiz ekonomikoak bermatzeko konpromisoa hartzen du.

4. Krisi kllmatikoaren aurkako borrokaren aldeko konpromisoa duten udalerrien nazlo mailako nahiz nazioarteko 'erakundeetako kide aktibo bilakatzea, Ondorengoak hain zuzen ere: -"Red Española de Ciudades por el Clima".-Alkateen Ituna.-"Ciudades en Transición".

### Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txanda zabaldu duenean, jarraian izandakoak jaso dira:

Dubreuil jaunak beharrezkotzat jo du plan bat egitea, eta esan du politikariek, teknikariek eta herritarrek elkarrekin landu behar dutela gaia.

Uste du garrantzitsua dela lan-mahaia lehenbailehen eratzea eta alde z aurretik, hori osatu arte edo aldi berean egoeraren diagnostikoa egitea itxaron gabe.

Onartutako ekintzak gauzatzeko aurrekontu-partida eskatuko da.

Esan du beharrezkoa dela irisgarritasunari, energia berriztagarriari eta abarrei buruzko parametro nagusienak ezagutzea, parametro hauekiko Ordiziako egoera eta gaiaren eragina eta aplikagarria den araudia zenbateraino betetzen den jakitea.

Sukia andreak esan du azterketa sakon bat egin behar dela, hori dela eta, anbizio handikoa izan behar duela uste du. Bere ustez bilera monografiko bate gin behar litzateke Agenda XXIeko teknikariarekin.

Dubreuil jaunak esan du bere proposamena dela gaia bideratzea eta bakoitza bere aldetik joatea saihestea.

Alkate jaunak esan du bilera bat egingo duela AGENDA XXIeko teknikariarekin gaia lantzen jarraitzeko.

### Bozketa

Aldeko botoak:5 (Euskalerrria Bildu EH-BILDU 2, EAJ/PNV 1, Elkarrekin Podemos-Ordizia Orain (Podemos, Ezker Anitza/IU,EQUO Berdeak 1, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

**Proposamena aho batez onartu da.**




Jarraian Batzordeburu jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **7.- Hainbat txosten eta eskaera.**

- **Udal talde sozialistak, Alkatezari proposatzen eta eskatzen dio ahalik eta denbora-epe laburrenean gaur egungo Gizarte Zerbitzuetako Aholku Batzordearen deialdia egin dezan**

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAABFV7L.khbQ>



Alkate jaunak esan du egingo duela. Esan du dagoeneko hitz egin duela Jone Herrero Sailaren koordinatzailearekin eta deialdia martxan jartzeko lana eman dio.

Dubreuil jaunak esan du beharrezkoa dela 2020 urterako proposamenak jasotzea eta ondoren aurrekontu partidari islatzea.



Jarraian, Batzordeburu jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **8.- Langileei dagozkien gai buruzko informazioa.**

Alkate jaunak langileei buruzko ondorengo puntuari buruzko informazioa eman du:

- Zerbitzu eginkizunetan dauden funtzionarioen hirurtekoak perfektionatzea, sustatu behar diren lanpostu berrietako funtzioak burutzen dituztenena.

Idazkariak gaia azaldu du eta horri buruz egin duen txostena azaldu du. Bertan azaltzen du, hirurtekoak, funtzionarioa kokatzen den sailkapen taldean perfektionatzen direla eta soilik beste sailkapen-talde batera igotzen denean talde horretako hirurteko berria perfektionatzen duela.

#### **Batzordeko kideek txostenaren kopia eskatu dute.**

- Zerbitzu orokorretako eginkizun aniztetako langilearen izendapena: F.E. izendatu da bitarteko funtzionario E.Aen plaza betetzeko, izan ere, hutsik geratu da azkeneko honek erretiroa hartu eta gero.
- S.M. bitarteko funtzionario izendatzea J.M.C. lorezaintzako peoi plaza betetzeko; izan ere, zerbitzu eginkizunetan izendatu da lorezaintzako arduradun lanposturako J.M. B. hil ondoren.
- M.B. aldi baterako programa luzatzea: Beste urtebetez luzatu da programa. K.Mk erretiroa hartu ostean eta Kontabilitate eta Informatika administrari lanpostua berraztertu eta gero, kontabilitate funtzioak geratuko dira soilik. Lanpostuaren balorazioa egingo da berriro, eta hori egin eta gero, logikoena izango litzateke M.B. izendatzea bitarteko funtzionario hutsik dagoen lanpostu hori betetzeko.



Jarraian, Batzordeburu jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **9.- Informazioa, ondorengo dekretuei buruzkoa: 19/0582, 19/0628, 19/0751, 19/0752 eta 19/0815.**

Sukia andreak eta Santamaria jaunak aurreko astean izandako osoko bilkuran dekretu batzuei buruz galdetu zuten, Alkate jaunak dagokion informazioa eman du.


Batzordeko kideek informazioa jaso dute.



Jarraian Batzordeburu jaunak hurrengo puntuari buruzko informazioa eman du.

### **10.- Fakturen zerrenda.**

Gobernu batzordeko kideek adierazi dute ez dutela zerrenda hori bidali.



## Ordiziako Udala

2019ITGB0010

Alkate jaunak esan du hurrengo Tokiko Gobernu Batzordean bidaliko direla.



Batzordeburu jaunak, hurrengo puntuaren berri eman du.

### **11.- Galderak eta eskaerak.**

Akate jaunak atzo Construcciones MOYUArekin izandako bileraren berri eman du, Majori Kiroldegia SMren birmoldaketa obrek izan dituzten desbideraketa ekonomikoei buruz aritu ziren.

Desbideraketak izan dira ondorengo bi arrazoiengatik:

- 1) Proiektuan dagoeneko jasota zeuden partiden desbideraketak edo aldaketak, exekutatu beharreko obra-unitateen ugartzeari eta prezio kontraesankorrei men egiten dietenak. Zentzu honetan, alkateak adierazi du obraren zuzendaritza fakultatiboak egin duela dagoneko txosten bat, eta bertan jasotzen dira kontuan izan beharreko partidak eta egokiak ez direnak. Legeak, hasierako prezioaren ehuneko 10aren gehienezko muga finkatzen du; eta kasu honetan, kontratuaren aldaketa alde batera utzi daiteke eta nahikoa litzateke berariaz jasotzea obraren ziurtagirian eta bukaerako likidazioan.
- 2) Klimatizazioaren partida handitzea, hasierako proiektuan aurreikusi zen baina ez bere osotasunean. Legeak hasierako prezioaren ehuneko 15a baimentzen du gehienez, BEZa kanpoan utzita, funtsezkoa ez den kontratu-aldaketa bat egiteko.

Hau da, kontratuaren aldaketa bat egin beharko da seguruenik klimatizazio partidari dagokionez, 326.000 €ko zenbatekoa izanik gutxi gorabehera, horrek ez luke hasierako prezioaren ehuneko 15a gaindituko espedientea bideratzeko funtsezkoa ez den aldaketa gisa.

Aldaketak ehuneko 20a gainditzen badu, AEko Kontsulta Organora bideratu beharko litzateke, (Aholku Batzorde Juridikoa), honek dagokion txostena egiteko.

Exekutatu beharreko obra unitateak ugartzeak gutxi gorabehera ehuneko 6,90a suposatzen du, hau da, 234.000 €; hasierako prezioaren ehuneko 10aren azpikoa da hala ere, eta ez du kontratuaren aldaketa ekartzen horrek.

.....

Alkate jaunak esan du erakunde adierazpen bat duela, "Proces"ari buruzkoa, Tokiko Gobernu Batzordeko kideek onartzeko, baina Bozera maileen Batzorde gisa eratuta.

Kide guztiei kopia bana eman die.


Dubreuil jaunak esan du ez duela adierazpenarekin bat egiten. Nolanahi ere, gainerako alderdi politikoen (EH-Bildu, EAJ-PNV eta O. ORAIN) aldeko erabakiarekin ONARTU DA.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEAK

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIAK



## Ordiziako Udala

2019ITGB0010

En Ordizia, siendo el día **17 de octubre de 2019** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

### **ASISTENTES:**

**PRESIDENTE:** Adur Ezenarro Agirre

### **CONCEJALES PRESENTES:**

Maitane Alvarez Garziandia	Euskalerrria Bildu EH-BILDU
Jon Ander Caballero Zubelzu	Euskalerrria Bildu EH-BILDU
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ/PNV
Mila Sukia Galparsoro	Elkarrekin Podemos - Ordizia Orain Podemos, Ezker Anitza/IU,EQUO Berdeak
Iñaki Dubreuil Churruca	PSOE-EE(PSOE)1

### **CONCEJALES AUSENTES:**

### **SECRETARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta

### **INCORPORACIONES Y AUSENCIAS**

- Sra. Alvarez se ausenta en el punto nº 5.


### **ASUNTOS TRATADOS**

#### **ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

- 1.- Aprobación del acta de la Junta de Gobierno Local de fecha 19 de septiembre de 2019.
- 2.- Modificación presupuestaria mediante transferencia de crédito (aportaciones a Majori y Ordizia Lantzen aprobadas en el pleno)
- 3.- Licencia de obras para la construcción de edificio de viviendas, garajes y locales en el casco histórico (Elkano 10)
- 4.- Licencia urbanística y de obras para la ampliación de edificio en Orkli S.Coop.
- 5.- Contratación de servicio de promoción de la convivencia intercultural en la comunidad escolar.
- 6.- Propuesta administrativa presentada por el Grupo Socialista instando al Gobierno Municipal a la adopción de medias frente al estado de Emergencia Climática..
- 7.- Informes y solicitudes varias
  - .- Soliicitud de PSE-EE(PSOE),Ordizia, de convocatoria de reunión del Consejo Asesor Municipal de Bienestar Social.
- 8.- Información sobre temas de personal.
  - .- Trienios, promoción interna.
  - .- Nombramiento Peón Servicios Generales.
  - .- Nombramiento Peón de Jardinería.
  - .- Prórroga de programa temporal de la Administrativo de intervención.
- 9.- Información sobre Decretos 19/0628; 19/0752; 19/0582; 19/0751 y 19/0815.
- 10.- Relación de facturas.

#### **ASUNTOS INCLUIDOS EN RUEGOS Y PREGUNTAS.**

- Información del Sr. Alcalde sobre las obras de Majori Kiroldegia, S.L. (Reunión con MOYUA).
- Manifiesto sobre el "Proces".




**Ordiziako Udala**

2019ITGB0010

**HORARIO**

**HORA INICIO: 14.00 horas.**

**HORA FINAL: 15:50 horas.**



Abierta la sesión por parte del Sr. Presidente se da cuenta del primer punto del Orden del Día:

**1.- Aprobación del acta de la sesión de fecha 26 de septiembre de 2019**

Propuesta

**“Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 26 de septiembre de 2019”**

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Dubreuil dice que en el punto nº 5, “dación de cuenta”, el Alcalde informó sobre varios puntos y entre ellos sobre: subvención del centro de atención diurna, situación de la plantilla de la policía municipal, obras de Majori Kiroldegia y reuniones mantenidas con Moyua y reunión mantenida con el departamento de Medio Ambiente del G. Vasco.

Dice que los temas sobre los que informó se recogen de una manera muy escueta.

Solicita que se aporte en el acta algo más de información sobre, valga la redundancia, la información facilitada.

